

Gure produktuak eta zerbitzuak publiko zabal batera heltzeko, komunikazio eta banaketa estrategia integrala eta anitza dugu. Helburua da gure mezua modu eraginkorrean helaraztea, bezeroekin harremanak sortzea eta komunitateari gure proiektuaren balioak eta helburuak argi eta gabi transmititzea.

Lehenik eta behin, sare sozialak erabiliko ditugu komunikaziorako tresna nagusia delako, kontuak sortuko ditugu Instagram, Facebook, Tik-tok eta Twitter-en, eta plataforma hauetan gure edukia modu erakargarrian aurkeztuko dugu, argazki, bideo eta istorio dinamikoen bidez. Helburua izango da jarraitzaileekin harreman harreman estua sortzea. Eduki koherentea eta ikus entzunezko kalitate handiko materiala erabiliko ditugu, gure balioak eta zerbitzuak modu erakargarrian ezagutarazteko.

Horrez gain, publizitate kanpainak diseinatuko ditugu sare sozialetan eta interneten, gure publikoa aztertuz eta gehien interesatuko zaien pertsonen gure mezua helarazteko, kanpaina hauek gure jardueren inguruko parte-hartzea sustatuko dute eta publiko berriak erakartzeko balioko dute.

Ez dugu ahaztuko komunikazio tradizionalak ere, kartelak eta panfletoak diseinatuko ditugu, hala nola liburutegietan, kultur etxeetan, kafetegietan eta Gaztetxeetan. Era berean, gure materiala hainbat erakunde eta kolektiboekin (Emakunde, Manos Unidas, Alboan, eta abar) partekatuko dugu, gure proiektuaren berri emateko eta elkarlan-aukerak sustatzeko.

Gure estrategiaren zati garrantzitsua izango dira aurrez aurreko ekitaldiak eta networking jarduerak. Tailerretan, azoketan eta tokiko jardunaldietan parte hartuko dugu, bertaratutakoekin zuzenean harremanetan jartzeko eta gure proiektuaren balioa modu pertsonalean aurkezteko. Era berean, aurkezpen-dinamika interaktiboak antolatuko ditugu, komunitatearekin konektatu eta elkar-lan aukerak sustatzeko.

Azkenik, webgune propioa izango dugu, gure informazio guztia modu egituratua eskaintzeko. Gune honetan, gure proiektuaren inguruko xehetasunak ez ezik, erreserba egiteko eta kontaktua errazteko tresnak ere eskainiko ditugu. Online eta offline komunikazioaren arteko oreka hau ezinbestekoa izango da gure mezua eraginkortasunez helarazteko eta gure bezeroen esperientzia hobetzeko.